

Antonio Corral eta Iñigo Isusi, IKEI

“Nazioarteko jardunbide egokiak: ekintzailtza eta emakumea”

2008ko irailaren 1a

“EMAKUME EKINTZAILEA LAGUNTZEA AUKERA EKONOMIKORAKO ETA ENPLEGURAKO AUKERA BERRIEN EZKUTUKO ITURRIA DA”

Donostiako IKEI Aholkularitzako Antonio Corralek eta Iñigo Isusik, “Emakumeak enpresaren erronkaren aurrean: ideiatik proiektura, proiektutik errealitatera” ikastaroaren barruan, emakume ekintzaileen sustapenaren inguruan Europan gaur egun martxan jarri diren nazioarteko zenbait jardunbide egokiri buruz hitz egin zuten.

Corral eta Isusik adierazi zuten, Europar Batasunak onartu du jada, enpresa-espirtua sustatzea lehentasunezkoa dela erabat, hori baita berrikuntzaren, lehiakortasunaren eta hazkundearen motor nagusia. Gainera, EBk enpresa-espirtuaren eta emaitza ekonomikoen artean korrelazio positiboa eta sendoa dagoela uste du eta, ondorioz, EBk konpromiso serioa hartu du Lisboako strategiaren markoan enpresa-espirtua sustatzeko.

Hori horrela, EB ekintzailtza orokorrean, eta emakumeena zehazki, sustatzearen beharraz ohartu dela adierazi zuten hizlariak, ez baita dagoen enpresa-ahalmena erabat ustiatzen. Pertsonen % 47k soilik adierazten du lan autonomoa nahiago duela, eta % 17k bakarrik bihurtzen du errealitate. Gainera, Europan, enpresa-idea askok ez dute inoiz argirik ikusten eta jarduera berria martxan jarri ondorengo hedapenak tasa baxuak lortzen ditu. “Datu kezkarriak dira –adierazi zuten Isusi eta Corralek- Europan, adibidez, pertsonen % 4k soilik adieraztea enpresa bat sortzeko beharrezkoak diren pausuak ematen ari dela (% 11 Estatu Batuetan) eta EBeko pertsonen % 44k porrot egiteko aukera baldin badago, enpresa bat martxan ez lukeela jarri behar pentsatzen duela (gizon eta emakumeen % 29k soilik pentsatzen du hori USAn).

Europar, enpresa-idea askok ez dute argia ikusten eta jarduera berria martxan jarri ondorengo hedapenak tasa baxuak adierazten ditu

Hizlariak azaldu zuten, Europan, emakume ekintzaileei zuzenduriko zerbitzu ohikoenak honako hauek dira: negozio bat martxan duten emakume enpresaburuentzako trebakuntza eta aholkularitza; negozioak hasi nahi dituzten emakumeei laguntzeko programak; emakume ekintzaileen sareak sortzeko ekimenak eta emakumeentzat zehazki finantza-laguntzak. Zentzu horretan, eta erreferentzia gisa laguntza publikoko

jardunbideak hartuz zazpi eremu zehatzetan (enpresa berriak sortzeko laguntza, finantzazioa, trebakuntza, “mentoring”, enpresa-sareak eta aholkularitza), Antonio Corral eta Iñigo Isusik, emakumeek beren enpresak sortzea erraztera bideratutako izaera publikoko nazioarteko sei jardunbide egoki aipatu zituzten. Hauek dira hautatutako jardunbideak: “Businessfrauencenter” (Austria), “Naisyrittäjyyskeskus” (Finlandia), “Fonds de Garantie pour la Création, la Reprise ou le Développement d’ Entreprise a l’ Initiative des Femmes” (Frantzia), “Mentoring macht Erfolg” (Luxenburg), “Audur i Krafti Kvenna” (Islandia) eta “Ekintzaitzaren Sustapenerako Europako Sarea -WES-”. Ondorio gisa, Corral eta Isusik, Europako markoan, emakume enpresaburuek jarduera ekonomikoari egiten dioten ekarpena handituz doala eta gizonezkoekin alderatuz, emakumeen presentzia txikiagoa dela. Emakumeek diotenez, enpresa-ekimenak sortu eta mantentzeko oztopoak honako hauek dira: diskriminazioa genero-arrazoia eta gizarte-estereotipoak direla eta; garrantzizko enpresa-harremanak eskuratzeko zailtasunak; generoen artean ugalketa- eta familia-lanak partekatzerakoan dagoen ezberdintasuna. Zentzu horretan, hizlariak adierazi zuten, “emakume-enpresaburu berriak lagunduko dituzten ekintza publikoak garatzen jarraitu behar da, horiek emakumeen sormen-ahalmena eta ekintzaitza sustatzen baitute, aukera ekonomikoen eta enplegu berrien ezkutuko iturri gisa”.